

KANBOKO HERRI BILTZARRAREN 2016KO MARTXOAREN 21EKO BILKURA

Herriko Biltzarra Herriko Etxean bildu da, Vincent BRU jaunaren lehendakaritzapean, 2016ko martxoaren 21ean, astelehenarekin, 20 orenetan.

Bertan ziren: Vincent Bru j., auzapeza, Bernadette Jougleux and., Christian Devèze j., Eliane Noblia and., Frédéric Bardin j., Pascale Lespade and., Didier Irastorza j., Henri Saint Jean j., auzapezordeak eta Anne-Marie Pontacq and., Vincent Goytino and., Christiane Hargain-Despéries and., Yolande Huguenard and., Jean-Jacques Lassus j., Argitxu Hirigoyen and., Jean-Noël Magis j., Corinne Othaceguy and., Peio Etchelecu j., Maryannick Hirigoyen and., Roger Barbier j., Carmen Gonzalez and., Pascal Bourguet j., Véronique Larronde and., Argitxu Hiriart-Urruty and., Philippe Bacardatz j., Nathalie Aïçaguerre and., Pantxo Michelena j., herri kontseilariak.

Ezin bertaratuak: Eliane Aizpuru and., auzapezordea eta Patrice Dor j., Camille Jenvrin j., herri kontseilariak.

Ahalordeak: Eliane Aizpuru andreak Didier Irastorza jaunari, Patrice Dor jaunak Pascale Lespade andreak.

1 – Bilkura idazkaria izendatzea.

Bertaratuek, **aho batez**, Argitxu Hirigoyen andrea hautatu dute bilkura idazkari.

Auzapez jaunak herri biltzarari eskatu dio gai zerrendako 10. puntua ken dezan, hau da, honako gai hau: euri urak kudeatzeko eskema zuzendaria egiteko ikerketa bulego bat izendatzea. Prozedura Egokituen Merkatuen Batzordeak proposatu baitu dosierra aurkeztu duten hautagai biei berriz ere kontsulta egitea, informazio gehiagoren galdetzeko. Puntu hori beste noizbaiterako utzi dute.

2 – Azken bilkura agiria onartzea.

Auzapez jaunak, biltzarkideei, 2016ko otsailaren 29an egin zuten azken bilkuraren agiriaren gaineko oharrik ote duten galdegin die. Oharrik ez denez, azken bilkuraren agiria aho batez onartu da.

3 – Ordainen esleipena.

Auzapezak herri biltzarari gogora ekarri dio Errobi Herri Elkargoa, 2011n, zerga profesional bakarraren sistemara pasatu zela, alde batetik, zerga profesionala kenduz eta, beste aldetik, Errobi Herri Elkargoak zerga profesionalaren sistema bakarra hartuz. Herritik herri elkargora eskumenen bat eskualdatu den bakoitzean, eskualdatu kargen balioztapena egin izan du Eskualdatu Karga Garbien Balioztatzeko Tokiko Batzordeak (EKGBB-CLECT), eta aldi oro, ordainen esleipena murrizteko proposatzen zuen.

Auzapez jaunak zehaztu du ezen, herri elkargoaren kulturaren gaineko eskumenak (musikaren irakaskuntza eta zuzeneko ikuskizunak), eta heziketa eta aisialdirako herriarte mailako jardunetarako eraikinen kudeaketaren gaineko eskumenak hedatzeko prozeduraren barnean, EKGBB-CLECT-ari galdetu zaiola eskualdatu eskumen alor berrien kargak baliozta ditzan. Batzorde horrek 2016ko martxoaren 9ko bilkuran eman ditu bere erabakiak, herrien alde aldatuz ordainen esleipenak.

Kanbo herriarentzat, ordainen esleipen horiek emendatu dira, 2011ko 1 059 508 eurotatik, 1 358 947 eurotara.

EKGBB-CLECTren erabakiak herri elkargoaren 2016ko martxoaren 16ko bulegoaren bilkurak onartu zituen.

Auzapezak argitu du 2016rako finkatuak ziren ordainen esleipenak 935 144 eurokoak zirela, musika eskola eskualdatu ondoren, eta azkenik, orain, 1 358 947 eurokoak izanen direla. Azken kopuru hori ez da agertuko bilkuran aztertuko duten aurrekontuan, kopuru horri haur ttipien gaineko eskumenaren eskualdatzeari dagokion kopurua kendu behar zaiolako. EKGBB-CLECT batzordeak ezin ukan zuen, martxoaren 9ko bilkuran, ekarpen hori balioztatu, Familia Laguntzen Kutxak eman beharreko 2015eko urteko informazioak ez zituztelako. Batzordea berriz bilduko omen da apirilean, herri elkargoak hemendik goiti ukanen dituen kargak behin betiko finkatzeko. Kanborentzat, 75 725 € izanen dira. Errobiko Herri Elkargoak erabaki du herrirentzako haurtzaindegien funtzionamendu kargen % 40a besterik ez atxikitzea, gainerako % 60a Errobiko Herri Elkargoak berak zuzenean hartzen dituelako bere kontu.

Haur ttipien zerbitzuaren eskualdatzearen ondorioz kendu beharreko 75 725 euroak kenduz, ordainen esleipenen 2016rako kopurua 1 283 000 eurokoa da eta hastapeneko aurrekontu proiektuan sartua da.

Auzapez jaunak gaineratu du operazio oso ona dela, oro har, herriarentzat, 2011n zituen ordainen esleipenak baino goragoak baititu orain, eta, horrez gain, esleipen osagarri hori mantenduko da, Euskal HELEP bakarra sortzen bada ere.

Herri Biltzarra EKGBB-CLECTaren martxoaren 9ko txostenaren erabakiak eta edukia, bai eta hortik ateratzen diren ordainen esleipeneko kopuru berriak, onartzera gonbidatua izan da.

Michelena jaunak honako hau galdetu du: «nola ulertzen duzu urte batetik bestera horrenbeste emendatzea; enpresen zerga sistemari loturik da ala familien gaineko zergari, edo biei loturik da?»

Auzapez jaunak erantzun dio enpresen zerga maila, egun, familia baina apalagoa dela, lehen gorago zelarik. Herri ororen artean banaturiko bost milioi euro inguru omen dira, Uztaritzen kokaturik den «Stratégies locales» bulegoak egin txostenaren arabera.

Devèze jaunak gaineratu du 2013an eta 2014an, Kanborentzat, eskualdatu eskumenen jokoaren bidez, ordainen esleipenen hastapeneko kopuruaren araberrako ezarpenak eginak zirela. Haur ttipien gaineko 2015eko eskumenaren eskualdaketak herri guztiak ukitzen ditu, baina 2013 eta 2014ko eskualdaketek, aldiz, ez zituzten herri guztiak ukitzen, bereziki musika eskolaren eskualdaketak, horrek Kanbo besterik ez baitzuen ukitzen. Kalkuluak, hasiera batean, bi murrizketa horiek gabeko kopuru baten arabera eginak ziren, hau da 70 000 € (2013an) kultura eta aisialdi zentroentzat, alde batetik, eta bestetik, 52 000 € (2014an), musika eskolarentzat. Herri guztiek ulertu dute garrantzitsua dela jatorrizko oinarria berreskuratzea; gainera, oinarri horri % 40a emendatzen zaio. Halatan, bada, Kanborentzat, Devèze jaunak zuzenagotzat zuen 2011ko oinarrien arabera egitea kalkulua. Hartara, egin den kalkulua, 1 059 000 euroren % 40ean egin da. Ordainen esleipen horiek Herriarteko Lankidetzarako Erakunde Publikoaren engaiamendua dira. Izan ere, ordainen esleipen horren kopurua iraunkorra eta behin betikoa izanen da, salbu beste eskumen eskualdaketaren bat egiten bada, noski, HELEP berriaren alde, horrek kopurua murriztuko bailuke.

Auzapez jaunak argitu du Estatuaren zuzkiduren murriztearen ondorioz, zenbait herri zailtasun egoeran zirela. 2004ko abuztuaren 13ko legeak, tokiko askatasunen eta erantzukizunen gainekoak zehazten du nola behar diren eskualdaturiko kargak kalkulatu, baina herriarteko biltzarren esku uzten du karga horiek finkatzeko askatasuna; EKGBB-CLECT batzordearen gomendioak iritzi

bat besterik ez dira. Lege horrek ordainen esleipenak libreki finka eta berrikusteko aukera uzten du. Kolektibitateek, HELEPEk, herriarteko biltzarrek apal ditzakete esleipen horiek, baldin eta herriarteko biltzarraren 2/3a ados bada, alde batetik, eta, bestetik, gehiengo arruntez bozkatzen duten biltzar oro bat badatoz.

Herri biltzarrari gehiengo arruntez bozka dezan proposatu zaio eta, baldin eta gainerako hamar herriek Kanbo bezala bozkatzen badute, herriarteko biltzarrak, 2/3en gehiengoz, ordainen esleipen horiek berrikus ditzake.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

4 – Errobiko Herri Elkargoa: laguntza funtsa.

Auzapez jaunak biltzarrari gogora ekarri dio laguntza funtsak legeak aurreikusiak dituela eta herri bateratzei, beren zerga sistema berea duten herriarteko elkargoei, kide dituzten herrien aldeko diruzko laguntzak emateko aukera ematen die. Errobi Herri Elkargoak aztertu zuen aukera hori, baina ez zuen hautatu, prozesu horrek Estatuaren zuzkiduren apalmendua zekarrelako. Halako laguntza funtsik ez baliatzea erabaki zuen, herri eta hirigune elkargo anitzek maiz erabiltzen badituzte ere, beren kideen alde. Herri elkargoaren diru egoera «Stratégies locales» bulegoarekin aztertu dugu eta egungo egoerak erakutsi digu baditugula baliatu ez ditugun diruzko aukerak. Zortzi milioi euro genituzke aukeran, herri elkargoaren diruzko oreka inolaz ere kaltetu gabe; areago, herri elkargoaren egoitzaren ondoan erositako eraikinean lanak eginen ditu elkargoak, enpresa mintegi bat egiteko.

Goytino jauna sartu da aretora.

Herri elkargoaren lehendakariak proposaturik, herri bakoitzari 100 000 euroko kopuru finkoa ematea erabaki da; gainerakoa, hau da, 6 900 000 €, 2013ko legezko biztanleria kopuruaren arabera banatuko da. Kanborentzat, kopurua 1 699 752 eurokoa da. Hamaika auzapezek bulegoan bildu eta ontzat eman dute banaketa; «Stratégies locales» bulegoak bali egin du kopurua eta auzapezek prozedura gauzatzea erabaki dute.

Herriak deliberamendu batez eskatu behar dio laguntza funts hori Errobi Herri Elkargoari; kopuruak ezin du izan herriak aurreikusiak dituen operazioak diruztatzeke, 2016ko herri aurrekontuan bete-betean agertzen den eta segurtatua den diruztapena baino handiagoa – dirulaguntzak kontuan hartu gabe-. Laguntza funtsa herriaren kontu geratzen den kostuaren % 50a da (ZGko kostua, ken dirulaguntzak). Herri kontseilari bakoitzak ukan du operazioen zerrenda; ez dira guztiak 2016an bururatuko, baina bai abiatuko.

Herriarteko biltzarrak, gero, laguntza funtsen ematea eta horren moldeak zehaztuko dituen hitzarmena onartzea erabaki beharko du.

Herriak berriz ere deliberatu beharko du laguntza funtsak eta haiei lotu hitzarmena onartzeko.

Bacardatz jaunak seinalatu du adierazi programen zerrendan, hondar kostuaren 1 guztirako partziala ez dela zuzena, zeren, baldin eta eskatu den laguntza funtsa hondar kostuaren % 50a bada, kopurua ez da horren bikoitza.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak onartu du akats bat dela eta kopurua 2 082 004 eurokoa dela eta ez 1 962 004 eurokoa; eskatu den laguntza funtsaren kopurua, berriz, ongi da.

Auzapez jaunak eskatu du taula zuzendua lehenbailehen igor dakion herri elkargoari.

Michelena jaunak erran du ados dela funts hori eskatzearekin, baina ez, aldiz, eman nahi zaion erabilerarekin. Eskarian bi alde daude eta seinalatu nahi zituen.

Auzapezak erantzun dio herriak zehatz-mehatz azaldu behar duela zein proiektutarako eskatzen duen laguntza funtsa. Ez da zuzkidura orokorra, operazioen araberako dirulaguntza da. Operazio horiek aurrekisuak zituzten jadanik. Bideak, lursail baten erostea eta ibilgailuak erostea erantsi diete.

Aiçaguerre andreak galdetu du ea Arnaga argizatzea ez den jadanik eginik.

Auzapez jaunak erantzun dio lehen zati bat, etxea, pergola, landareak, laranjondotegia eta poeten txokoa, egina dela. Baina gaueko ikuskizunak direnean, ordea, argi eskasa dela lorategietan, eta lorategi horietako zenbait elementu ere argiztatu behar direla. Horretarako, bigarren zati bat programaturik da, sistema berarekin, programa informatikoan sar dadin.

Bacardatz jaunak galdetu du ea eskaintza deialdi berria egingen den, ez baitira lan osagarriak.

Auzapez jaunak erantzun dio argiztapen sistemak jadanik ezarria den programa informatikoarekin bateragarri izan behar duela. Lana enpresa berak beharko luke egin, beste inork ezin bailuke programa hori erabili. Horregatik, Philips sozietateak jarraituko du lanen gidaritza eramaten, Kanboko Escudié jaunaren bitartez.

Bacardatz jaunak dio argiztapen hori lan osagarri gisa egingen dela eta lehen merkatuaren kopurua bikoiztuko duela.

Auzapez jaunak onartu du merkatuaren kopurua ezaugarri guztiz bereziengatik emendatu dela. Elektrizitate enpresa ere Kanbokoa da.

Bacardatz jaunak galdetu du ea lehen zatia bururatua izan den eta ea funtzionatzen duen. Lanen batzordearekin, lanen bururatze bilkura egingen zela erran zen. Egiteko da?

Auzapez jaunak baietz erantzun dio, baina zehaztu dio ekaitz batek hondatu duela sistemaren zati bat eta konpontzen ari direla, eta proposatu du udako ekitaldien kariatara joan daitezen lorategiak argiztaturik ikustera.

Hiriart-Urruty andreak ohartarazi du, argietarako bakarrik, 300 000 eurotik gorako kopurua dagoela eta galdetu du ea dirulaguntzarik baden.

Auzapez jaunak erantzun dio aurretik ikusia zen kopurua dela, argiztapena garestia izan ohi baita. Horretarako ez da dirulaguntzarik. Kultura gaietarako Eskualde Zuzendaritzak (KEZ-DRAC) kable nagusien lurpean ematea diruztatu du, baina ez du argiztapena diruztatzen. Operazio horrek urtean 80 000 bisitari hartzen dituen leku eder hori balioztatzeke aukera emanen du, batez ere gaez.

Aiçaguerre andreak galdetu du ea ekitaldirik aurreikusi ote duten eta ea halakorik balitz, gastu gehiago ekarriko ote duen (langileak...), «garesti gertatuko da hori guztia, urtean hiruzpalau ekitaldirako».

Auzapez jaunak erran du gaikako gaualdiak eta mintzaldiak antolatuko dituztela, bai eta uztailaren 13ko suziriak; abuztuan udakoak; irailean, ondarearen jardunaldiak, eta lekua aloka daiteke ere. Horrez gain, kontsumoaren gastua apalduko da, LED moduko anpoilak erabiliko direlako. Laguntza funtsak karga hori arinduko du.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

Hiriart-Urruty andreak, Bacardatz jaunak, Aïçaguerre andreak eta Michelena jaunak zehaztu dute ez direla ados aurkeztu zaizkien proiektu batzuekin.

5 – Tokiko zergak.

Auzapez jaunak erran du, azken herri biltzarrean erran zuen bezala, 2016ko zerga mailak ez direla emendatuko. 2014. urteaz geroztik, zerga maila horiek aldatu gabe diraute, hau da:

- Bizileku zerga: % 11,24
- Lur eraikien gaineko zerga: % 10,38
- Eraiki gabeko lurra: % 26,33

Auzapez jaunak ohartarazi du zerga horiek apalxko direla, 5 000tik 10 000 biztanle bitarteko herrien aldean, eta nazio edota departamendu mailan egiten dena baino nabarmen beheragoak. Guztiarekin ere, kanboarrei ahalegin bat gehiago ez eskatzea erabaki dute.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

Goian aipatu tasa horiek aho batez onartu dituzte, 2016 urterako.

6 – Elkarteentzako dirulaguntzak.

Auzapez jaunak erran du herri kontseilari bakoitzari igorri zaiola Kanboko eta Kanbotik kanpoko elkarrentzat (Kanbon egiten diren jardunak edota kanboarrek egiten dituztenak) 2016. urterako proposatuak diren dirulaguntzen zerrenda. Aurten dirulaguntzak ez igotzea erabaki da; beste zenbait herritan, dirulaguntza horiek apaldu dituzte, Estatuaren zuzkidurak apaldu zaizkielako.

Elkarrentzako dirulaguntzak iazko kopuru berdinetan mantendu dira, salbu herri taldeak aztertu duen zenbait eskari.

Elkarte bat gaineratu dugu zerrendara, *Restos du cœur* elkartea. Elkarreak Aiherran du egoitza, baina auzapeza elkarrearen ordezkari edota kideekin mintzatu delarik, jakitera eman diote Kanboko dozena bat familiek baliatzen dutela elkarte hori. Herriak lagundu behar ditu zailtasunak bizi dituzten familiak laguntzen dituzten elkarte horiek.

Auzapez jaunak erran du *Secours populaire*, elkarrearen ordezkariak ere hartu dituela, HGLZ-CCASaren lehendakariak ere ikusiko dituela eta Kanbon jende harrera bat egin nahiko luketela. Jadanik Uztaritzen dira. Haiei ekarpen baten egitea gero ikusiko da.

Badira dirulaguntzarik ez duten elkarreak, horretarako eskaririk egin ez dutelako.

Auzapez jaunak galdetu du ea inork erratekorik duen dirulaguntza proposamenei buruz.

Aïçaguerre andreak galdetu du ea zenbat ematen zaion *Restos du cœur* elkarteari.

Auzapez jaunak erantzun dio 500 € direla.

Auzapez jaunak erran du Itsasuko Xapata elkarreak gutun bat igorri berri diola, iaz bezala, Itsasuko gereziaren labelerako proiekturako laguntza bat eskatuz, Kanboko lurra ere hartzen baititu proiektu horrek. Dosierra guztiz osatu gabe zenez, elkarteari iragan sasoiko bilana igor dezan eskatu zaio. Eraitza elkarreak dirulaguntza dosierra aurkeztu du. Epez kanpoko eskari hori hurrengo bilkura batean aztertuko dugu.

Aiçaguerre andreak erran du berak dirulaguntzen onuradunen zerrenda ikustean konturatu dela Sukil'hand elkarteak ez zuela dosierra behar bezala bete. Gerora egin ote duen galdetu du.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak erantzun dio egunean bertan galde egin ziola Sukil'hand elkartearek behar bezala bete zezan eta dosier osoa biharamunean aurkeztu zuela.

Aiçaguerre andreak ikusi du besta komiteen bi dosierretan, 2015eko emaitza defizitarioa zela. Lehen aldiz gertatzen zaio halakorik Behe Kanboko besta komiteari.

Lespade andreak erantzun dio Behe Kanboko besta komitea ez dela defizitarioa. Bilanean, dirulaguntza sartzea ahanzi dute. Goi Kanboko komiteak 3 073,46 euroko defizita du, baina aterpe gastuak bi aldiz ordaindu ditu (1 740 €) eta 700 € lapurtu dizkiote; hartara, egiazko defizita 603,46 eurokoa besterik ez da. Komiteko kideek, defizit horren estaltzeko, taldeen janariak prestatzeko asmoa dute, jatetxeetara igorri ordez, horren fakturek 1 120 € osatzen baitzituzten; aurten, hori egiteko gai izanen direla uste dute, komitean jende gehiago ari delako lanean.

Aiçaguerre andreak erran du Paskalekuko aterpearekin gutxiago gastatu dutela, baina gastu guztiak estaltzeko juxtutxo ibiliko direla uste du.

Lespade andreak dio aurten ere eskatuko duela besta komiteak, Aiçaguerre andrearen bitartez, Paskalekurako aterpea.

Bacardatz jaunak galdetu du ea «urtero uzten duen Behe Kanboko besta komiteak dirulaguntza sartu gabe».

Lespade andreak erantzun dio joan diren urteetan bera ez zela besten arduraduna eta, hartara, ezin duela erran ea dirulaguntza sartua zen ala ez. Aurtengo kontu defizitarioak ikustean konturatu da ez zutela dirulaguntza sartu. Ez dira defizitarioak.

Auzapez jaunak erran du «Haur ttipien» eskumena eskualdatzearen ondorioz, Etxeko Hautzainen Bitartekaritzari (EHB-RAM) ematen zitzaion dirulaguntza ez diola, hemendik goiti, herriak emanen; Errobiko Herri Elkargoak hartuko du bere gain.

Devèze jaunak dirulaguntzen kopurua 9 975 eurotan apaltzea proposatu du eta kopuru hori ustegabeko gastuetarako ematea.

Dirulaguntzen guztizko kopurua 308 305 eurotan ezarri dute.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

Elkartei emanen zaizkien dirulaguntzen kopurua aho batez onartu dute.

Barbier jaunak dio ez duela, lehengo urtean bezala, Sukila elkarteak galde egin duen dirulaguntzaren alde bozkatu nahi.

7 – GLHZ-CCASarentzako eta Eskolen Kutxarentzako dirulaguntza.

Auzapez jaunak proposaturik, Herri Biltzarrak, aho batez, honako dirulaguntza hauek erabaki ditu:

- 64 000 € GLHZ-CCASari (apaldu da, eskumenak eskualdatu direlako),
- 8 164 € Eskolen Kutxari.

8 – 2016ko hastapeneko aurrekontuen bozketa.

Auzapez jaunak Devèze jaunari, finantzen auzapezordeari, eman dio hitza, 2016ko hastapeneko aurrekontuak aurkez ditzan; aurrekontu horiek iragan martxoaren 3ko finantza batzordeak aztertu zituen.

➤ **Aurrekontu nagusia**

Devèze jaunak seinalatu du, alde batetik, aurten aurrekontu guztiz berezia duela aurkezten, 13 milioitan orekaturik, laguntza funtsengatik eta ordainen esleipenengatik. Beste aldetik, hala kargetan nola diru sartzeetan, zenbait jarduera GLHZ-CCASetik Herrira pasatzen dira (OGAH-ALSH, IKJB-NAP) eta haurtzaindegia, hemendik goiti, Errobiko Herri Elkargoaren esku izanen da.

Funtzionamendu atalaren oreka 6 374 823 euroko kopuruan lortzen da eta inbestimenduarena 6 632 032 eurotan.

Devèze jaunak funtzionamendu atalaren diru sartzeak eta gastuak aurkeztu ditu, eta datu aipagarrienak azaldu ditu.

Michelena jaunak seinalatu du diru sartzeetan, 7062. artikuluan, hau da, kultura eiteko zerbitzuen ordainen artikuluan, lehengo 571 793,97 eurotatik 384 000 eurotara pasatzen garela 2016an, hau da, alde handia dagoela, eta horren zergatia galdetu du.

Devèze jaunak erantzun dio 2015 urte bereziki ona izan dela Arnagan, sartzeeen kopurua 562 819 eurokoa izan baita. Aurten, berriz ere 2014ko kopurura ekarria izan da, hau da, 377 000 eurotara, eta horiei mediatekarako izen emateak gaineratu behar zaizkio, hau da, 7 000 €. Jadanik ez dugu musika eskolako izen emateen kopurua, eskumen hori eskualdatua izan delako. Baldin eta 2016ko sasoinak ere sartze kopuru handia biltzen badu, orain aurreikusi kopurua egokituko dugu, aldatze erabaki baten bidez.

Michelena jaunak seinalatu du 7067. artikuluan 110 000 euroko emendatzea gertatu dela.

Devèze jaunak erantzun dio hori hala gertatu dela, OGAH-ALSH herriaren eskuetara pasatu delako eta horri dagozkion diru sartzeak, lehen, GLHZ-CCASaren eskuetara zihoazelako.

Michelena jaunak ohartarazi du, 6247. artikulua gastuetan, hau da, eskola garraioenetan, 14 325 euroko apaltzea gertatu dela. Harrigarri zaio eskola garraioak iaz baino merkeagoak izatea.

Devèze jaunak dio hori lehengo urtean ikusi zutela, garraio sozietateekin birnegoziaztean.

Bardin jaunak galdetu du ea nondik datorren 611. artikulua (zerbitzu emate kontratuak) 20 000 eurotaraino emendatzea.

Devèze jaunak erantzun dio OGAH-ALSH Herriari eskualdatzeak dakarrela; eskolaldi inguruko eta eskolaz kanpoko apairuak bere gain hartzetik dator.

Devèze jaunak, gero, inbestimendu atalaren diru sartzeak eta gastuak azaldu ditu; oreka 6 632 032 euroko kopuruan lortzen dute; herri kontseilari orori eman zaizkie kontu horiek.

Michelena jaunak seinalatu du 180 000 euroko gastu bat, Arnagako kerubinetarako, eta zer eginen duten galdetu du.

Auzapez jaunak dio urmael biribila dela gaia eta Tournaire arkitektoak eskaini zizkiola kerubin horiek Edmond Rostand-i, 1906an. Kerubin horiek Arnagako jatorrizko apainduretako bat

omen dira eta arras andeaturik dira. Kopuru hori espezialistek dute finkatu.

Michelena jaunak aipatu du 228 000 euroko kopuru bat aurreikusia dela, autobus geltoki baten egiteko. Ekipamendu hori erabiliko duten konpainiek gastuan parte hartuko ez ote duten galdetu du.

Jougleux andreak erantzun du herriak duela autobus geltoki horren antolaketa bere gain hartuko eta aurkeztuko diren konpainiek baliatuko dutela gero. Konpainiek ez dute horren diruztatzean parte hartzen.

Auzapez jaunak zehaztu du ekipamendu horrek Sorhainde aparkalekua liberatzeko aukera emanen duela, orain autoan elkarrekin bidaiatzen dutenek edo ibilaldiren bat egitera doazenek, bai eta autobusek erabiltzen baitute eta gero, saltegieta eta herri barneko egiazko erabiltzaileentzat izanen da. Bestalde, ohartarazi du autobusek Kanboko karrketan aparkatzen dutela orain eta geltokira joan daitezkeen eskatuko zaiela gero.

Hiriart-Urruty andreak galdetu du ea ez den Azantza berritzeko deus aurreikusia.

Auzapez jaunak erantzun dio ezen, argindarraz gain, berogailuaz gain, berrituak izan diren behe solairuko aretoez gain, bigarren solairuari dagokionean, baldin eta horri ari bada Hiriart-Urruty andrea pentsatzen, deus ez dela aurreikusi, ez aurrekontuan ez berehalakoan ere. Euskal Herriko SOLIHA (lehengo PACT) delakoari edo beste erakunderen bati galdetu beharko zaie ea bizitegiak eginen diren.

Beste gairik ez zenez, auzapez jaunak 2016ko aurrekontua bozkatzera deitu du; funtzionamendu ataleko oreka 6 374 823 eurotan lortzen da, eta inbestimendukoa 6 632 032 eurotan.

Gehiengoz onartua. Abstentzioak: Hiriart-Urruty and., Bacardatz j., Aïçaguerre and., Michelena j.

➤ **Saneamendu kolektiboko aurrekontu osagarria**

Devèze jaunak saneamendu kolektiboko aurrekontu osagarriaren 2016ko aurrekontu proiektua aurkeztu du; funtzionamendu ataleko oreka 594 794 eurotan lortzen da eta inbestimenduak 1 648 163 eurotan.

Bacardatz jaunak dio ez duela, inbestimenduko diru sartzeetan ikusten, Camp de César bideko biztanleen ordainketa.

Devèze jaunak erantzun dio diru sartze hori ez dela inbestimenduetan sartzen, funtzionamenduan baizik.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak zehaztu du parte hartze hori funtzionamendu aurrekontuaren 704. artikuluan aurreikusia dela (PFAC).

Bacardatz jaunak galdetu du ea kopurua, eginiko egiaztatzeen ondorioz aldatuko den.

Devèze jaunak ezetz dio, aritu diren bi sozietateek (lanen gidaritza eta enpresa) beren kargu hartuko baitute, erdibana, gertatu den alde. Inbestimenduari dagokionean, 2016ko merkatuaren kopuru osoa ez da azken kostuaren arabera kokatua izan eta, hartara, halakoren beharrik balitz, aldatze erabakiren bat egin dezakete gero, kopurua doitzeko.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

Saneamendu kolektiboaren aurrekontu osagarria gehiengoz onartu da. Abstentzioak: Hiriart-Urruty and., Bacardatz j., Aïçaguerre and., Michelena j.

➤ **Hilobien aurrekontu gehigarria**

Devèze jaunak hilobien aurrekontu osagarriaren aurrekontu proiektua aurkeztu du; atal bakarra du, funtzionamendukoa, eta oreka 72 672 eurotan lortzen da.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

Aurrekontu hori aho batez onartu dute.

9 – BEUZZP-SPANC aurrekontuaren hetsiera.

Devèze jaunak herri biltzarrari banakako etxeen ur zikinen zerbitzu publikoaren aurrekontu osagarria hestea proposatu die (BEIZZP-SPANC). Gogora ekarri die 2015eko emaitza negatiboa 4 523,71 eurokoa zela eta aurrekontu nagusiaren funtzionamendu gastuetara lotu dutela; eskumen hori, URA sindikatuak du orain.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

BEUZZP-SPANC aurrekontu osagarriaren hetsiera aho batez onartu dute.

10 – Autokarabanentzako eremuaren antolaketa: enpresen izendapena.

Bardin jaunak gogora ekarri die hautetsikideei ezen, 2015eko uztailaren 20ko eta azaroaren 30eko delibaremenduen bidez, herri biltzarrak erabaki zuela Mulienea Jardun Eremuan dauden bi lursail erostea; 4 340 m² neurtzen dute eta guztizko prezioa 368 900 € ZG da. 2015eko abenduaren 21eko deliberamendu batez, herri biltzarrak autokarabanentzako harrera eremu bat eta zerbitzuak antolatzeko lanen proiektua onartu zuen; guztira 44 aparkaleku ukanen ditu eta aurreikusi den kostua 368 300 € ZG da.

2016ko otsailaren 25ean deialdi bat egin zen. Merkatua hiru zatitan banaturik esleitzen da; honela banaturik dira zatiak:

- 1. zatia: Bideak eta bestelako sareak – Aurreikusi kostua: 280 500 € ZG; egin litezkeen bestelako zerbitzu osagarriak: 39 000 € ZG
- 2. zatia: berdeguneak – Aurreikusi kostua: 68 300 € ZG
- 3. zatia: ekipamenduak – Aurreikusi kostua: 66 500 € ZG.

Eskaintzak egiteko azken data eta ordua 2016ko martxoaren 16ko eguerdia zen. Gutun azalak Prozedura Egokituen Merkatuen Batzordearen (PEMB-MAPA) 2016ko martxoaren 16ko bilkuran ireki zituzten. Eskaintzen azterketaren txostena BETIDEIA obralariak aurkeztu zuen, PEMB-MAPAren 2016ko martxoaren 21eko bilkuran. Batzordeak honako enpresa hauek proposatu ditu:

- 1. zatia: SOBAMAT, diru kopurua: 272 318,21 € ZG (tehar litezkeen beste zerbitzu osagarriak kanpo)
- 2. zatia: Lafitte Paysages, diru kopurua: 53 536 € ZG
- 3. zatia: URBAFLUX, diru kopurua: 58 880,40 € ZG

Guztira, 384 734,61 € ZG dira, eta horri obralaritza gastuak erantsi behar zaizkio: 7 800 € ZG, hau da, guztira: 392 534,61 € ZG.

Bacardatz jaunak seinalatu du Lafitte enpresak lanak egiteko epea aldatu duela, hasiera batean

bost astekoa baitzen.

Bardin jaunak dio hala dela, epea lau astetara laburtu dela.

Hiriart-Urruty andreak galdetu du ea autokarabanen eremua udarako irekiko duten.

Bardin jaunak erantzun dio, asmoa uztailaren lehenean irekitzekoa dela.

Hiriart-Urruty andreak galdetu du ea xeila sistemarik izanen ote den.

Bardin jaunak baietz dio eta txartel urdinaz ordainduko dela.

Irastorza jaunak gaineratu du talde bat aritu dela autokarabana eremu zenbait bisitatzen, nola funtzionatzen zuten eta zein material erabiltzen zuten ikusteko eta guztiek dutela xeila sistema eta guztietan ordaintzen dela txartel urdinez. Funtzionamendu horrek erabilera errazten die kurista eta turistei.

Bardin jaunak aipatu du ez dela erreserba sistemarik.

Irastorza jaunak zehaztu dio, momentuz ez dela erreserbarik egingen eta, beste bainu etxeetan galde eginik, kuristek ez omen dutela erreserbarik egiten.

Auzapez jaunak erran du proiektuari zertxobait aldatu diotela, lurraren ezaugarriengatik, eta lau aparkaleku gutxiago izanen direla. Magis jaunari eskatu dio proiektua lanen batzordean aurkez dezan eta, gero, herri kontseilari orori eman diezaien behin betiko proiektuaren berri.

Magis jaunak erran du proiektua lanen hurrengo batzordean, hau da, apirilaren 8an, aurkezteko asmoa duela.

Jougleux andreak gaineratu du ongi litekeela proiektua auzotarrei ere aurkeztea.

Auzapez jaunari oso ideia ona iruditu zaio, auzoko biztanleei jakitera eman behar baitzaie.

Hiriart-Urruty andreak galdetu du ea autokarabanen eremu bat izateak behartzen dituen autokarabanak han kokatzera.

Auzapezak erantzun dio, araudiaren arabera, herri batek autokarabanentzako eremu bat badu, debeka dezakeela autokarabanak, gauez, beste inon koka daitezten. Aldiz, egunez, nonahi ibil daitezkeela eta aparka dezaketela eta, Kanbon polizia bakarra dutenez, zaila izanen dela araua betetzen ez duten karabana jabeei isunik jartzea. Operazio honen xedea autokarabanak estadioaren aparkalekura joan ez daitezten da. Gainera, haiek nahiago dituzte antolatutako dituzten eremuak eta eskatzen dituzte horrelako eremuak.

Irastorza jaunak baieztatu du hori, erranez halako eremu bat antolatu duen bainuetxe bati galdetu diola eta kuristen % 90a berriz etorri dela. Eremu horiek erabiltzaileentzako baliagarri diren zerbitzuak eskaintzen dituzte. Gainera, horrela zerbait egin dezakegu, baldin eta autokarabanak zenbait auzotan kokatzen badira oraindik.

Bardin jaunak uste du ongi litekeela zenbait lekutan (Trikaldi bidea, kirol zelaiko aparkalekuan...) «Autokarabanak ez» panelak ematea.

Hiriart-Urruty andreak seinalatu du Trikaldi bidean ez zirela kuristak, baizik eta bideetako jendeak zirela, iragan udan, bi hilabetez kokatu.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

11 – Euri uren eskema zuzentzailea egitea: ikerketa bulego baten izendatzea.

Gaia gai zerrendatik kendu dute.

12 – Sorhainde plazaren antolamendua: programa onartzea eta Estatuari dirulaguntza eskatzea.

Magis jaunak herri biltzarrari proposatu dio Estatuari eska diezaion legebiltzarkideen erreserbatik eman dezan Sorhainde plaza antolatzeko laguntza.

Herriak Kanboko Ideia ikerketa bulegoa hautatu du, plaza horren antolamendua proposa dezan. Herri kontseilari bakoitzak, deialdiarekin batera, antolaketa plana jaso du.

Antolaketak aparkalekuen kopurua emendatuko ditu, zirkulazio norabidea aldatuko eta egungo autobus aterpea eta komunak aurtiki eta berriak egingen, mugikortasun urritua duten pertsonentzako egokia den autobus geldileku berria egiteko lanei loturik. Lanetarako Ideia ikerketa bulegoak aurreikusi duen kostua: 223 000 € ZG.

Herri biltzarrari proposatu zaio onar dezan Sorhainde plazaren antolaketa proiektua, guztizko kostua 230 170 € ZG delarik, zeinetan, obralaritzak 7 170 € ZG balio dituen eta antolaketa lanek, berriez: 223 000 € ZG, eta eska diezaiola Estatuarilegebiltzarkideen erreserbaren laguntza.

Bacardatz jaunak galdetu du nola hautatu duten BETIDEIA bulegoa, batzordean ez baita ikusia izan.

Magis jaunak dio kopurua 15 000 € baino txikiagoa izanik, hiru ikerketa bulegori eskatu zaiela eta, hirurak aztertu ondoren, BETIDEIA hautatu dutela.

Bacardatz jaunak galdetu du, aparkalekuei dagokienean, ea, zona urdinean badira, inguruko establimenduetako langileek bertan aparkatu ahalko dutenez.

Jougleux andreak erantzun dio aztertu dutela, bai, aparkalekua zona urdinean eman ala ez eta hala egin behar dela argi ageri zaiela, promenatzera joaten direnek gehien erabiltzen duten aparkalekua baita, bai eta autobusa hartzen dutenek eta saltegiatiko merkatari zenbaitek ere; merkatari horiek kezu dira beren bezeroek ez dutelako lekurik atzematen. Horregatik, aparkalekua zona urdinean eman beharko litzateke.

Auzapezak gaineratu du pribatua den aldea bazter utziko dutela, ez baita herriarena.

Magis jaunaren errana osatzeko, auzapezak zehaztu du, hainbat proiektu ukan duen antolamendu horretan taxiak ere sartzeko aukera aztertu zutela, hobeki ikusiak izan nahiz lekuz aldatu nahi baitzuten. Aztertu zen ere egungo garaietara egokitzeko aukera, ibilgailu elektrikoentzako lekuak eta birkargarako guneak ezarri. Edukiontzia lurpean emanen ditugu. Bizikletentzako txokoa ere aurreikusi dugu. Bestalde, merkatariak badituzte eraikinaren gibelean, beren aparkalekuak.

Michelena jaunak galdetu du ea merkatariari zona urdinaren berri eman zaien.

Jougleux jaunak erantzun dio Dor jaunak aurkeztu diola proiektua merkatarien batasunari; merkatariak erabat aldeko dira eta zona urdina beren aparkalekuan ere ezartzea pentsatzen ari dira.

Bacardatz jaunak dio, ibilgailu elektrikoentzako lekuei dagokienean, batzordean, urririk izanen zirela aipatu zela eta jakin nahi luke ea hala izanen den, SDEPAk diruztatzen baitu.

Goytino jaunak erantzun dio SDEPAk baieztatu duela gune elektrikoak kokatzea eta argindarra diruztatuko dituela; horrek erran nahi du ibilgailuak urririk birkargatuko direla.

Bacardatz jaunak gaineratu du SDEPAren hitzetatik berak ulertu zuela bi urtez arituko zela, dispositiboa abiarazteko.

Goytino jaunak erantzun dio herriak ibilgailu elektrikoek erabilera sustatu eta erraztu nahi zuela, SDEPAk argindar guztia diruztatuko zuela jakin baino lehen ere. Ez du bi urterako denik konprenitu, baizik eta luzerako eta baliteke SDEPAk gibelerara egitea erabaki horretan.

Lespade andreak dio SDEPAk instalazioa diruztatuko duela, baina argindarra jendeek ordainduko dutela.

Goytino jaunak zehaztu du SDEPAk instalazioaren % 80a diruztatzen duela; gainerako %20a herriaren kargu da. Ibilgailua kargatzera etorriko diren jendeek ez dute deus ordainduko.

Lespade andreak galdetu du ea nork ordaintzen duen argindarra.

Goytino jaunak erantzun dio SDEPAk duela ordaintzen. Argindarraren kostua bere gain har zezakeela iruditu zitzaion. Faktura handiegia balitz, aldatuko du erabaki hori, noski.

Lespade andreak dio erne izan beharko dela. Jende orok ibilgailu elektrikoak ukanen dituenean, SDEPAk ez du, segurki, argindarra bere gain hartuko.

Goytino jauna erabat ados da, baina momentuz, SDEPAk argindar gastuak bere gain hartuko dituela erran du.

Bacardatz jaunak ohartarazi du aparkalekua zona urdinean izanez gero, sei oren inguru behar dituen birkarga laster batekin ibilgailua ez dela behar bezala birkargatuko.

Goytino jaunak erantzun dio oren eta erdiz birkarga daitekeela; hainbat terminal mota dagoela, batzuk besteak baino lasterragoak. Zehaztu du terminal elektrikoak bi leku aurreikusi dituztela.

Magis jaunak erran du galdetuko duela zona urdinetan ez ote den dispentsarik, birkarga elektrikoentzat.

Auzapez jaunak herri biltzarrari eskatu dio Sorhainde plazaren antolaketa proiektua onar dezan eta Estatuari, legebiltzarkideen erreserbaren laguntza eska diezaion.

Aho batez onartua.

13 – Egonaldi zerga: diru bilketa administrazioa sortzea.

Irastorza jaunak herri biltzarrari proposatu dio egonaldi zerga kobratzeko diru bilketa administrazioa sortzeaz erabaki dezan. Izan ere, gero eta alokatzaile gehiagok txekez dute zerga hori ordaintzen eta kudeaketa behar ez den bezala egin beharrean ez izateko, diru bilketa administrazioa sortu behar dugu. Martin andreak, herriaren diruzainak, adostasuna adierazi digu, 2016ko martxoaren 8ko mezu elektroniko batez.

Auzapez jaunak herri biltzarrari iritzia eman dezan eskatu dio, kontuan hartuz, gero, horren

sortze agindua eta kudeatzailea eta ordezeko mandatariak izendatzeko agindu bana eman beharko dituela.

Aho batez onartua.

I – Hilerria: bizitegi esleipena.

Auzapez jaunak erran du 1997an hartu erabaki batetan gertatu zen anbiguotasun bat zuzendu behar dutela. Izan ere, langileei ematen zaizkien funtzio bizitegiak lurraldeko funtzio publikoari buruzko 1990eko testu batek gobernatzen ditu. Herri biltzarrak herriaren hilerrian atezaindegi bat sortzea erabaki zuen, bizitegia ere eginez. Hilerriko zaintzailea izendatzeko agindua, bizitegia esleituz, 1982ko ekainaren 14an eman zen. 1997ko azaroaren 13ko deliberamendu batez, herri biltzarrak, atezainak galde eginik, zerbitzu eman beharra erdira ekartzea onartu zion, eta bizitegia zerbitzuaren beharragatik esleitzea erabaki zuen ere. Deliberamendu hori zuzendu behar dugu orain.

Zehaztu du araudiak dioela bizitegia eslei daitekeela zerbitzuaren erabateko beharra bada.

Titularra bertan izatera behartua da, lekuaren zaintza egiteko, publikoari zabalik ez denean ere, eta itzuli birundak egin behar izanez gero, egin behar ditu ere, eta lurraldeko agintaritzari jakinarazi behar dio ikusten duen irregulartasun oro.

Halatan, bada, bizitegia urririk esleituko zaio, erabat zerbitzuaren beharretarako.

Bizitegia T4 deitu motakoa da; 100 m² neurtzen ditu eta sukaldea, hiru gela, bainugela bat, komuna, puskategia eta lorio ireki txiki bat gibelaldean.

Alokatze gastuak (ura, argindarra, berotzea, gasa, bizileku asurantzua, mantentze lan arruntak eta konponketa txikiak, bizileku zerga...) langilearen gain dira.

Herri Biltzarrari eskatu zaio 1997ko azaroaren 13ko deliberamendua zuzen dezala, ez baitator bat 2012ko maiatzaren 9ko dekretuarekin, hau da, bizitegia urririk esleituko dela, zerbitzuaren erabateko beharrarengatik. Gogora ekarri du atezainak ez duela soilik zaintza lana egiten; bisitariak laguntzen ditu ere, argibideak ematen dizkie, eta lekuaren zaintza egiten du, lapurreta aski izaten baita.

Aiçaguerre andreak ohartarazi du funtzioagatiko bizitegirako eskubidea ematen duen lanpostua dela, baina langile horri Herriak ordaintzen ote dio? Lurralde langilea da?

Auzapez jaunak erran dio Herriak ez duela langilea enplegatu.

Aiçaguerre andreak dio langile batek ezin duela soilik funtzio bizitegia jasoz ordaindua izan.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak baieztatu du bizitegia lan horiek egiteagatik ordaindua den norbaiti eman behar zaiola. Egun, Herria tarteko egoera batean da. Egoera hori zuzendu behar da, funtzioa egiten duenak ez baitu ofizialki bizitegiaren esleipena. Hori guztia argitu behar da, lurralde langile estatutua ukan behar duen langilea kontratatzeari dagokionean. Kontuan hartuz berak duen adina eta emazteak beste lan bat duela, zaila da kontratuarena. Hemendik hiru urtera, beste aterabide bat beharko dugu bilatu. Egungo atezainei kalte ez egitearren, behin-behineko aterabide hori hartu beharko genuke, bizitegian aspaldi baitira eta beren egitekoak ongi bete baitituzte orain artean. Alabaina, 2012ko maiatzeko dekretuak langile horren estatutua aldatzeaz gogoetatzera behartzen du herria.

Aiçaguerre andreak galdetu du ea ezin duten emaztea ordu batzuetarako lurralde langile bezala kontratatu, orain legez kanpo baikara.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak erantzun dio egoerak ez duela ez batzuegan ez besteengan eraginik. Beste atezainak izendatzerakoan argituko dute guztia, Arnagako atezaintzarekin egin duten bezala.

Hiriart-Urruty andreak ohartarazi du atezainek ez dutela gizarte segurantzarik eta galdetu du ea zer egingen lukeen herriak osasun arazorik ukanen balute; ez zaio normala iruditzen.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak erran du gizona erretretan dela eta hor baduela gizarte babes, eta emaztea soldatapean dela eta hor baduela berak ere gizarte babes.

Hiriart-Urruty andreak galdetu du ea bertan izan beharra beti den.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak dio bertan izan beharra lanaldi erdia baino gutxiagokoa dela, salbu Omiainsandu aitzineko garaian.

Hiriart-Urruty andreak galdetu du zer gertatuko den eritzen edo zauritzen bada, eta nork ordezkaturiko duen lana egin ezinik bada (birunda itzuliak, zaintzak, etab...).

Auzapez jaunak erran du egoera hori zehazkiago aztertuko dutela. Ohartarazi du herria oso pozik dela eginga den lanarekin eta oso gaitza litzateke pertsona horiek, legera egokitze, bizitegia utzi behar dutela erratea.

Hiriart-Urruty eta Aiçaguerre andreak zehaztu dute ez dutela bizitegia utz dezaten eskatzen, eta Bacardatz jaunak gaineratu du lanpostua sortu beharko litzatekeela.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak gaineratu du herriak egoera hori arauetan ematekotan, andrearekin beharko lukeela egin, eta, halatan, andreak goizeko eta arratsaldeko zenbait ordutan bertan izan beharko luke, baina ezinezkoa zaio. Herriak eskatzen zuen bertan izate hori gizonak nola emazteak egin ohi zuten orain arte. Egoera argitzekotan, herriari gaitz gertatuko zaio oraingo atezainak atxikitzea.

Hiriart-Urruty andreak ohartarazi du pertsonari galdetu beharko litzaiokeela ezin duela erran baino lehen.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak erran du biak hartu dituela; eztabaidatu dira eta senar-emazteek egoera ezagutzen dute. Berriz bilduko da haiekin.

Hiriart-Urruty andreak honela galdetu dio zuzendariari: «lasai nazak; ez dik hik erabakitzen, ala?»

Auzapez jaunak erran du zerbitzuen zuzendari nagusiaren egitekoa dela funtzionarien bizitegi gai horiek eta haiekin doazen egitekoak lantzea, auzapezak horretarako manua emanik; zuzendariari da jendeen hartzea eta lurralde agintaritzari proposamenak egitea, azken horrek erabaki dezan.

Hiriart-Urruty andreak erran du hautetsien erantzukizuna dela kontratu zuzenak egitea eta herriak enplegatzen dituen pertsonen babes segurtatzea; adibidez, , zer gertatuko litzateke baldin eta atezain andrea bere egitekoan zaurituko balitz?

Auzapez jaunak erantzun dio erabat ados dela eta bozkatzera deitu du.

Gehiengoz onartua.

Kontrako bozak: Hiriart-Urruty and., Bacardatz j., Aiçaguerre and., Michelena j..

5 – Langileak.

a) Urteko oporraldien gaineko araudia

Zerbitzuen zuzendari nagusiak erran du herri biltzarrak oporren gaineko araudia onartu behar duela. 1985eko azaroaren 26ko 85-1250 dekretuaren 5. artikulua dio urte bakoitzeko oporraldiak ezin direla pilatu eta hurrengo urterako atxiki, ezpada ezintasun fisikorengatiko edo amatasunagatiko geldialdiei loturiko gibelatze kasuetan. Lurralde agintaritzak behar du erabaki eritasun edo amatasun geldialdi batengatik erreferentzia aldi batean hartu ez diren urteko opor egun ororen gibelatze automatikoa ematea. Lurralde agintaritzak muga lezake, ahal arautua duenak esku hartu arte, opor egun horien gibelatze aldia. Gibelatze aldi horrek gutxienik hamabi hilabetekoa behar luke izan eta ezin du, inoiz, hamazortzi hilabeteko aldia baino luzeagoa izan. Aldi hori kolektibitateak, batzorde tekniko parekidearen iritzia entzun ondoren onartuko duen urteko oporren gaineko araudiak finkatu beharko du. Batzorde parekide horrek, 2016ko urtarrilaren 22ko bilkuran, aldeko iritzia eman zuen, bi kolegioek aho batez hala erranik, ezintasun fisiko edota amatasunekoagatiko geldialdien kasuetan oporraldia hamazortzi hilabeteko mugetan finkatuko lukeen urteko oporren gaineko araudiari dagokionean.

Herri biltzarrari araudi hori onar dezan proposatu zaio.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

Urteko oporren gaineko araudia aho batez onartu da.

b) Lanpostuan ez izateko baimen bereziak

Zerbitzuen zuzendari nagusiak erran du lanpostuan ez izateko baimenatarako indarrean den agindua 1979ko abenduaren 10ekoa dela eta baimen horiek eguneratu beharko lirakekeela.

Lanean ez izateko baimen bereziek langileari lanpostutik alde egiteko bidea ematen diote, lurralde agintaritzaren baimenarekin, arrazoi jakin batzuegatik eta horren frogagiria aurkeztuz. Urteko oporraldietan ezin da, printzipioz, lanpostutik alde egiteko baimenik eman. Lanpostuan ez izateko bi baimen berezi mota daude:

- Lanpostuan ez izateko arauturik diren baimen bereziak, deliberamendu beharrik ez dutenak,
- Senide gertakariengatik lanpostuan ez izateko baimen bereziak eta arauturik ez diren baimenak; horietarako deliberamendua behar da.

Batzorde tekniko parekideak, 2016ko urtarrilaren 22ko bilkuran, aldeko iritzia adierazi zuen, bi kolegioek aho batez hala adieraziz, lanpostuan ez izateko baimen bereziak herri kontseilari bakoitzak jaso duen taularen arabera eguneratzeko.

Herri biltzarrari eguneratze hori onar dezan proposatu zaio.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

c) Langile kopuruen taula

Zerbitzuen zuzendari nagusiak azaldu du langile kopuruen taula urtero eransten zaiola legezko kontrolera igortzen den hastapeneko aurrekontuari, baina 2011z geroztik ez dela horren gaineko berezko deliberamendurik eman. Herri biltzarrari proposatu zaio onar dezan herri kontseilari

bakoitzari, 2016ko apirilaren lehenean xeheki azaldurik eman zitzaion langile kopuruen taula.

Bacardatz jaunak galdetu du ea zein den aurrekontu kopuruen eta kopuru hornituen arteko aldea. Hornitzeko hamabost lanpostu ote ditugu?

Zerbitzuen zuzendari nagusiak zehaztu du hornitzeko diren kopuruak deliberamendu bat ukan dutenak direla; kopuru hornituetan arteka bat gertatzen da, jadanik ezin direlako lanpostuak aldatu; horretarako, lehenik lanpostu berria sortu behar da eta zaharra kendu. Biltzarrak lanpostuak kentzeaz deliberatu beharko du urtean zehar, behin gradu berriko izendapenak egin direnean.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

d) Sasoiko lanpostuak

Zerbitzuen zuzendari nagusiak erran du herri biltzarrak jadanik emana duela bere iritzia 2016ko sasoiko lanpostuei dagokienean, 2015ekoen aldean. Herri biltzarrari proposatu zaio lanaldi osoko sasoiko lau lanpostu sor ditzan, ekainaren erditik irailaren hondarra arte, Arnaga etxeko laranjondotegian, zalditegian eta lorategietan, Donostia 2016, Kulturaren Europako Hiriburua ekitaldiaren barnean eginen den arte garaikidetako erakusketa zabalik den bitartean, lekuak zaintzeko.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

5 – Emaiza.

Auzapez jaunak erran du Lyon-go Théâtre des Célestins antzerkiak egin duen Edmond Rostand-en Chantecler piezaren antzerki jantzien emaitza dela gaia.

Lyon-go antzerki horrek jantziak kendu nahi zituen gainetik eta enkantean eman ditu; herriak Chantecler obraren lau jantzi erosi dizkio, 4 000 eurotan eta Arnagara ekarri ditu.

Gero, beste zenbait jantzi agertu zaizkie eta Les Célestins antzerkiak urririk eskaini dizkio herriari. Hiru buru dira, Chantecler jantzi oso bat eta uso gorputz bat.

Auzapez jaunak herri biltzarrari proposatu dio emaitza hori onar dezan eta horretarako hitzarmena sinatzeko baimena eman diezaion. Lyon-go Théâtre des Célestins antzerkiari eskerrak emanen dizkio.

Hiriart-Urruty andreak galdetu du ea emaitzaren bat den bakoitzean egin behar den deliberamendu bat, zeren, azken bilkuran, Jesus Echevarriaren emaitza onartzeko deliberatu baitzuten.

Auzapez jaunak dio Jesus Echevarriaren emaitzerako deliberamendua behar zela, 100 000 euroko kopurua baitzen eta notario agiria egin behar zelako; agiri hori sinatzeko auzapezak biltzarraren baimena behar zuen. Gehienetan, pizu zerbaiteko emaitzetan, diruzko balio zerbait dutenetan, deliberamendua egin ohi da, horren arrastoa gera dadin eta emailei herri biltzarraren esker ona erakusteko.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

)- Auzapezaren erabakien berri.

Lurralde Kolektibitateen Kode Nagusiaren L.2122-22 eta L.2122-23 artikuluen arabera, bai eta herri biltzarraren 2014ko apirilaren 7ko deliberamenduaren arabera, honako hauen berri eman da:

- Ez erosteko erabakiak, lehentasunez erosteko eskubideari loturik, 2016ko otsailaren 20tik martxoaren 11 arte:
 - Lursailak: 0
 - Etxeak: 4
 - Apartamentuak: 2
- Hilerriko kontzesioen emate eta berriro hartzeari dagokienean, 2016ko otsailaren 20tik martxoaren 11 bitartean:
 - Kontzesioen erostea, 15 urterako: 1
 - Kontzesioen erostea, 30 urterako (+ hilobiak): 0
 - Kontzesioen erostea, 30 urterako (+ kutxategiak): 0
 - 15 urterako kontzesioen berritzea: 1
 - 30 urterako kontzesioen berritzea (hilobiak): 0
 - Urririkako lurren berriz hartzea: 0

) – Hainbat gai.

- Auzapez jaunak erran du Pontacq andreari eta inguruan duen taldeari esker, arroltze bilaketa izanen dela, pazko jaien karietara, 2016ko martxoaren 26an, larunbatarekin, goizean bost urtez peko haurrentzat eta arratsaldean 6-10 urtekoentzat, Arnagako parkean.
- Auzapez jaunak herri biltzarrari jakitera eman dio martxoaren 19an, Kanbon, Euskal Herriarentzat garrantzitsu ziren hiru bilkura egin zirela:
 - goizean, Hautetsien Kontseilua bildu zen, Prefeta ere bertan zelarik,
 - arratsaldean, 14:30ean, Euskal Kultura Sostengatzeko Herriarteko Sindikatua bildu zen eta Peio Etchelecuk hartu zituenean erran zuen ezen, egun hartan, Kanbo, Euskal Herriaren hiriburua zela. 16etan, berriz, prefeta ere bertan zelarik, auzapezak Euskal Kulturaren Erakundearen biltzar nagusian izan zen. Didier Irastorzari eta egun horretako intendentzia zerbitzua egin zuten hautetsiei eskerrak eman nahi dizkie. Arras baloratua izan da haien presentzia.
- Auzapezak herri biltzarrari jakitera eman dio martxoaren 19ko hautetsien kontseiluaren bilkuran, Jean-René Etchegaray lehendakariak jakitera eman zuela hautetsi bakoitzari igorriko zaiola, posta elektronikoz, eguerdian, HELEParen dokumentua, non biltzen diren Hazparneko Herri Elkargoaren lokaletan egin prestaketa lantegietan azaldu galdera garrantzitsuei Estatuaren zerbitzuek eman dizkieten erantzunak. Gehiengoaren taldekoek hartu dutela diote, baina oposizio taldeko lau hautetsiek, aldiz, ez dute ukan. Auzapez jaunak zerbitzuen zuzendari nagusiar horren kontu har dezan eskatu dio eta agindu du paperezko bertsioa igorriko dela eta herritarren eta hautetsien esku jarriko.
- Auzapez jaunak herri biltzarrari jakitera eman dio hautetsien kontseiluaren lehendakaria Errobiko Herri Elkargoko hautetsi guztiekin mintzatzea etorriko dela, 2016ko martxoaren 29an, 18:30ean, Larresoroko areto balioanitzera. Gonbita herri kontseilari orori igorri zitzaien, iragan martxoaren 19an.

Beste federazio proiektuari dagokionean, Claude Olive etorriko da, horren aurkeztera, baina soilik Errobiko Herri Elkargoko hamaika auzapezei, hurrengo apirilaren lehenean.

- Auzapez jaunak erran du Decressac jaunak, Baionan aduanen zuzendari nagusi denak jakitera eman diola Kanboko aduanen bulegoa mantenduko dutela eta Baionako poloa azkartuko.
- Saint Jean doktoreak gogora ekarri du hartzaindegia GLHZ-CCASaren eskuetatik Errobiko Herri Elkargoaren eskuetara aldatzearekin, koordinatzaile lanpostu bat sortu dutela eta Marie-Baptiste Jameau andrea aurkeztu eta hartu dutela. Oso pozik da hautagai hautatu berria eta oso ongi egingen du lan hori. Harekin lan egiten zutenak tristatu dira, ordea, Jameau andrea Pimprenelle hartzaindegiaren zuzendaria baitzen, 1992an hartzaindegia sortu zenetik eta ez baita erraz izanen hark egiten zuen lana egingen duena atzematea, gaitasun handiak eta jarrera zuzenak baitzuten eta, aldi berean, gurasoei eta hurrei adi-adi ari baitzen. Betetzen zail izanen den hutsa uzten du, beraz. Errobiko Herri Elkargoak beharko du, orain, haren ordezkoa ekarri, Kanboko hartzaindegira.

Auzapez jaunak zehaztu du hari dagokiola ordezkapena egitea.

Hiriart-Urruty andreak gaineratu du Jameau andrea gaitasun handikoa izateaz gain, oso bihozbera dela, hutsik gabekoa eta, gainera, elebiduna. Berak ezagutu zuen, bere bi haur Kanboko hartzaindegian aritu baitziren. Oso pozik da izendapen horrekin.

- Bacardatz jaunak, iragan martxoaren 14an egin ziren topaketak direla eta, saneamendu batzordeko kide gisa sartzen utzi ez ziotenez, jakin nahi luke ea mintzaldi horietan erran denaren bilanik eskura dezakeen.

Devèze jaunak erran dio bakarka eskaria eginga zuten zenbait jende hartu zituela. Banaka hartuko zituela agindu zien eta ez zegoen zertan ordezkari gisa etorri, biztanle bakoitzari eskatzen zaion fakturaren kopurua guztiz gauza pribatua baita. Oraindik zenbait jende badu hartzeko, hizketaldia gibelatzeko eskatu baitzioten. Gibelatze eskaria onartu eta martxoaren 22ko arratsalderako jarriak ditu hitzorduak. Banakako hizketaldi horien laburpenik ez da egingen; azaldu dituzten arazoetarako aterabideak bilatzen saiatuko dira, bakoitzari fakturatzen zaiona benetako gastuen arabera egin dakion, Devèze jaunak beti azaldu duen nahiaren arabera.

Izan ere, HEA eta ECRD sozietateek egin kalkuluetan akatsak izan direla dio, azken sozietate horren langile batek material informatikoa gaizki erabili duelako.

Bacardatz jaunak dio ulertzen duela informatikako arazo batetik datorrela dena, baina, ikusirik biztanleak direla fakturan akatsak zizutuzela ohartu, proiektuaren zati orokorrerako, aurreikusia da kontrolik egitea, hoditeria nagusian ere, kopuruetan, akats informatikorik gertatu ote den ikusteko? Baldin eta partikularren fakturazioetan akatsa gertatu bada, zergatik ez zen hoditeria nagusian ere hala gertatuko?

Devèze jaunak erantzun dio gutun bat igorri dietela obralariari eta enpresari, hori aipatuz, Camp de César-eko bideko lanetan eta Termetako zubikoetan, 2015eko programakoak baitziren eta material informatiko hori baliteke lan horietan ere erabili izana.

Bacardatz jaunak dio ezin zaiola enpresa bati bere burua epai dezan eskatu. Kontrolik egin behar bada, zerbitzuek behar dute egin, horretarako gai badira, edo, bestela, kanpoko bulego bati behar zaio eskatu.

Devèze jaunak erantzun dio ez dela erabat horrela. Biztanleek azaldu zioten zalantzari jarraiki, HEA obralariari ECRDk egin kalkuluek berrikus zitzan eskatu zion berak, eta horrela konturatu da HEA sozietatea akatsak bazirela. Devèze jaunak ere uste du gertatu berri dena

oso kaltegarria dela eta fakturazioa zehatza izan dadin nahi du, besterik ez. Halarik ere, ez da pentsatu behar fidagarri ez diren pertsonekin arazo edo bidegabekeria sistematikoak gertatzen direnik. Akatsak zuzentzea da funtsezkoa.

Bacardatz jaunak zehaztu du, martxoaren 14an ukan zuen hizketaldiari dagokionean, eginik ziren lanak fakturatzeko erabaki bat hartu dela hastapenean. Alta, jaso duen faktura, bidea hetsirik bailitzan egina zen eta hoditeria pasarazteko ireki den zati publikoa biztanleei birfakturatu zaie; horrek partikularren faktura aldatu du. Berari dagokionean, aldaketa 150 eurokoa da. «Baliteke batzuentzat ez sobera izatea, baina inoiz ez da erran biztanleek ukituko zituenik. Egiatzko ekintzarik gabeko zerbitzua fakturatu zaie; hala azaldu die zerbitzu teknikoek ingeniariak eta hala erabaki da», gogoratu du Bacardatz jaunak.

Devèze jaunak erran du zerbitzu teknikoek ingeniariak halako operazioetan duen esperientziari loturiko aukera bat eman zuen. Azkenean, erran zuen HEA sozietateak egin kontrolen emaitzari begiratu diola kolektibitateak, lehen erran bezala.

Bacardatz jaunak erran du, hastapenean Devèze jaunak erran bezala, herri biltzarrek biztanleen parte hartzearen alde bozkatu zuela. Baina ohartarazi du badirela bozkatu ez diren erabakiak, zerbitzu teknikoek hartu dituztenak eta 150 euro eragin dituztenak.

Devèze jaunak berriz ere erran du fakturazioa egiatzki eman zerbitzuen arabera eginen dela eta bestelako agindurik ez dela eman ez eta emanen ere. Obralariak eta ECRD enpresak hamabost urte daramatzate herriarekin lanean eta beti bete dute ongi beren egitekoa. Arazo hori dela eta, langile batek akats bat egin du, baina ez da pentsatu behar dena bidegabekeria denik.

Bacardatz jaunak gogora ekarri du, autokarabanen eremuari dagokionean, erran zela proiektua azaltzeko bilkura bat eginen zela biztanleekin. Galdetu du ea, behin saneamendu arazo hau konpondurik izanen denean, auzo batzordeak edota auzapezak biztanleekiko bilkura antolatuko duten, azalpenak emateko, zeren «gai honetan, pagatzaile txartzat hartuak izan baitira, gezurtizat, eta haien erranak zalantzan jarri izan dira, martxoaren 14ko hizketaldietan. HEA sozietateak, hizketaldian erran du hamabi dossier eman zituela eta hamaika biztanlek ez zutela sinatu nahi ukan. Ez da hala?»

Devèze jaunak dio inoiz ez direla gezurtizat edo pagatzaile txartzat hartuak izan. Zehaztu du 2016ko apirilaren lehenean pagatzeko ziren kopuruak 2016ko irailera gibelatuak izan direla.

Bacardatz jaunak ohartarazi du moralki ez dela batere gauza erraza izan, guztiek baitzuten biztanleen mesfidantza. Alta, zer eta biztanleek arrazoi zuten, zerbitzu gehiegi fakturatu baitzitzaizkien.

Devèze jaunak erantzun dio batzuen kasuan fakturatu dela sobera; beste batzuen kasuan, alderantziz gertatu da, azpitik kalkulatu zaie.

- Hiriart-Urruty andreak galdetu du ea noiz izanen den THParen berrikusketari buruzko hirigintza batzordearen bilkura.

Bardin jaunak erantzun dio bilkura apirilean zehar eginen dela, hain segur.

Hiriart-Urruty andreak jakin nahi luke zein ondorio atera diren Herri Elkargoan LuKEari buruz egin den bilkuratik.

Auzapez jaunak erran du Uztaritze Herriaren hirigintza dokumentuaren aldatze dosierrari legezko kontrola egin diotela. Bilkura bat eginen da, proiektu ekarle orok, obralari orok bete ditzaten LuKEaren aginduak eta Herri Elkargoaren aginduak. Gauzen bilakaeraren berri emateko bilkura

antolatuko da.

Auzapez jaunak herri biltzarraren bilkura 23etan eman du amaitutzat.

Auzapez jaunak bere kideei jakitera eman die, ezustekorik edo presakorik ez bada gertatzen, Maite Bidabek lagunduko duen azken herri bilkura dela orduko hori. Lan guztiz artatsu eta kalitatezkoa egin duelarik, ofizialki erretreta har dezan baino lehen, herri biltzarrari eskatu dio, esker erakutsia egiteko, txalo dezaten.